

HITZA



MUGAK ZEHARKATUZ

Memoria historikoa lantzea helburu duen Zeru Trukaketa proiektua garatzen ari dira Gernika-Lumon
 • Berlingo zerua ikusi ahalko da irudikatuta, irailaren 21ean #3



Proiektuko artistak, atzo, Astran, udalerriko zerua zeharkatuko duen pankarta margozten. AIZO MARIORI

Zeru Trukaketa proiektua garatzen ari dira Gernika-Lumon

Memoria historikoa lantzen duen proiektuak Berlingo eta Gernikako zeruak batzen ditu • Berlingo zerua irudikatuta daraman pankarta irailaren 21ean ikusiko da udalerrian

- ANE MARURI ARANSOLO

Gernika-Lumo

Michael Klant sortzaile alemaniarraren Zeru Trukaketa proiektuaren bigarren zatia garatzen dabilta egunotan Gernika-Lumoko eta Berlingo artistak, Astran. Proiektuak bakerantz bideraturiko oroimenezko kultura kontzeptua garatzea du helburu, eta Berlin eta Gernika-Lumoko herrien arteko adiskidetzeari irudikatu gura du.

Artista alemaniarraren proiektua urte hasieran abiatu zuten, eta pankarta bana daramaten bi hegaldi burutzeari dago. Lehenengo hegaldia Berlingo zeruan ikusi ahal izan zen apirilaren 26an, Kondor Legioak 1937an Gernika-Lumo bonbardatu zuen egun berean. Orain, proiektuaren bigarren zatian, Berlingo zerua irudikatzen duen bigarren hegaldia udalerriko zeruan ikusi ahalko da Bakearen Nazioarteko Egunean, irailaren 21ean. Hala, hegazkin txiki batek

100 metro karratu inguruko pankarta bat eramango du udalerriri inguruan zehar 11:00etatik 14:00etara bitartean, eta lurreantz jausten utziko du forma «ikusgarriak» eginez. «Pankarta kulunkan erortzen uzteagaz inbasio artistiko bat egin gura da, airetik balizko suntsiketen kontrapuntu gisa. Hala, mugak zeharkatzen dituen ekintza izango da, eta gaur egungo berizte nazionalisten gorakadaren aurka zuzenduta egongo da», adierazi dute ekintza artistikoaren arduradunek.

Memoriaren lanketa

Gernika-Lumo hiri baten kontrako lehen bonbardaketa «indiskriminatuaren» ikurra dela gogorarazi dute Gernika Gogoratuz elkarteak, eta handik gutxira, 2. Mundu Gerra osoan, airetik eraso Berlingo hiriraren aurka ere erabili zutela adierazi dute. Hala, Espainian eta Alemanian memoria histori-

koa eta oroimena zuzen landu ez dela arrazoituta, gertaera horiek gogorarazi eta landu gura izan dituzte Klantek, Gernika Gogoratuz elkarteak, Lobek eta Alemaniako Deutsch Baskischer Kulturverein taldeak: «Espainian, Memoria Historikoaren Legea, 36ko Gerrako memoria landu eta horren ondorioak aurreikusten dituen, 2007ra arte ez zen onartua izan. Eta Alemanian, 1997an Gernikako bonbardaketari buruzko adierazpen ofizialak egin ziren arren, alemaniarrek 36ko Gerran izan zuten eskuartzearen berririk ez dago».

Testuinguru horretan, Klant artista eta irakasleak pintura lantzen duen ekintza artistikoa bultzatu zuen, eta bertako artistekin dihardu lanean: Damaris Pan EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasleagaz, Angela Lopez Gernikako Astrako kideagaz eta Maitane Azurmendi Gernikako Lobak elkarteak kideagaz batera.